



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

# Bertsozalea

www.bertsozale.eus

## "Bada garaia nondik abiatu ginen gogoratzeko eta norantz joan nahi dugun erabakitzeke"

**Ekainean abiatu zen gogoeta estrategikoaren bigarren hitzordua izango da hilabete honetan. Sei arloren inguruan iritziak elkar trukatzeko tailerrak egingo dira irailaren 22an, Baionan. Bazkide, zure ekarpena ere oso aberasgarria izango zaigu.**

Gogoeta prozesua abiatu du Bertsozale Elkarteak. 2006an egin zen elkartearen norabideari buruzko azken gogoetaldia eta orduz geroztik asko aldatu dira gauzak, Bertsozale Elkartearen, bertsolaritzaren mugimenduan zein munduan ere. Horregatik, ekainean bertsozaletasunari buruzko azterketa soziologikoaren emaitzak herrialdez herrialde aurkeztu ondoren, utzi dituen gai nagusiak aztertuko dituen tailerra antolatu dugu irailaren 22an Baionan. Eta azaroaren 10ean eta 11n gogoeta jardunaldiak egingo ditugu.

Bertsozale Elkarteko zuzendaritza taldeko kideak dira Miren Artetxe, Igor Elortza eta Beñat Gaztelumendi eta berripaper honetan gogoeta prozesuaren inguruko xehetasunak eman dizkigute.

**Gogoeta urtea da aurtengoa. Zein mementotan harrapatzen ditu Bertsozale Elkarteak eta, oro har, bertsolaritza?**

**Miren Artetxe:** Une interesgarrian, esango nuke. Bertsolaritza etengabe ari da eraldatzen: bertsogintza bera, plazak, bertsolaritza ulertzeko moduak... Gizartea bera aldatzen doan neurrian, bertsolaritzak ezin du bertan goxo egin, etengabe oreka bila aritu behar duelako. Eta, alde horretatik, azken urteak ere mugituak izan dira.

Elkarteari unean uneko egoeraren irakurketa egitea dagokio: ibilian-ibilian bertsolaritza eta bere burua birpentsatzea, birkokatzea, berrasmatzea. Ez da erraza, ordea, egunetik egunerako lanean perspektiba hartzea, zooma atzera egitea eta estrategia orokorrari erreparatzea. Indarra mementoko beharretara bideratzen da maiz, ezinbestean, eta noizean behin gelditu, arnasa hartu, eta gogoetarako tartea ere hartu beharra dago. Ba, hauxe da unea.

Bada dozena bat urte azken gogoetaldia egin zela eta bada garaia ordutik hona egindakoari begiratzeko. Nondik abiatu ginen gogoratzeko. Non gauden ohartzeko. Eta orain norantz joan nahi dugun erabakitzeke.

**Lehen pausoa eman dugu: bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoaren emaitzak aurkeztea. Emaitza eta ondorio mamitsuak atera dira abiapuntu gisa?**


**Beñat Gaztelumendi:** Ondorio nagusia zera da, bertsolaritza aldatzen ari dela, eta ez dela belaunaldi aldaketa bat bakarrik. Esaterako, azken urteotan emakume bertsolariak sekulako lanketa egin dute bai taldean eta baita nork bere aldetik ere: diskurtso feminista ekarri dute bertsolaritzara, eta kualitatiboki jauzi handi bat ekarri du horrek.

Baina plazan, kuantitatiboki, horrek ez du neurriko aldaketarik ekarri: plazan ari diren emakume bertsolarien kopurua ia ez da aldatu azken hamar urteotan, eta emakume horiek plazan duten presentzia ere ez. Alde izugarria dago behin adin batera iritsita (16-18 urte) bertso-eskola uzten duten gizonen eta emakumeen portzentajeen artean.

**Hainbatek pentsatuko du bertsolaritza oso ongi dagoela eta ez duela gogoetaren beharrik...**

**B.G:** Bertsolaritza osasuntsu dagoela esaten da, eta, neurri batean, egia da. Baina aurrera jarraituko badu beharrezkoa izango du garaian garaiko mugimenduekin artikulatzea, aliantzak sortzea, diskurtso berriak bere jardunean txertatzea... Gaur egungo kultur testuinguruan ongi txertatuta dago bertsolaritza eta, kulturaren gertatzen den bezala, azterketak erakutsi digu bertsolaritzan bertan ere plaza aldatu egin dela: dibertsifikatu egin da, jaialdi handiei eutsi arren, asko ugartu dira publiko zehatzei zuzendutako saio ez hain jendetsuak ere. Azterketaren lehenengo gaiak sortu du kezkarik handiena, eta gogoetan leku zentrala beteko du. Azterketa soziologikoa, Bertsozale Elkartearen urteotan lanean ari garenon esperientziaren gisan, tresna bat da non gauden jakiteko eta bizi dugun unearen diagnostiko xehe bat egiteko.

Aurkezpenek abiapuntu hori finkatzen lagundu digute. Eta datozen hilabeteotan bigarren pausoa ematea dagokigu: abiapuntua hau izanik, nora iritsi nahiko genuke hemendik hamar urtera?



# "Balantzea oso ona izateak ez du esan nahi zer hobeturik ez daukagunik"

Hamabi urte pasa dira Bertsozale Elkartek azken gogoetaldia egin zuenetik, Zarautzen. Balantzea egiteko garaia da eta horretarako ere baliatu nahi dugu martxan jarri dugun gogoeta prozesua.

**2006an egin zen elkartearen norabideari buruzko azken gogoetaldia. Batzuek parte hartu zenuten orduan, beste batzuek ez... urteotan gauzatu dira bide-orri hartan jasotakoak? Zein da balantzea?**

**Igor Elortza:** Hasteko, zera esango nuke: gertarazten duguna gertatzen da.

Balantzea ona da. Edo oso ona. Batetik, duela dozena bat urte ezarritako helburuak eurak azertatuak direla berretsi dezakegulako. Adibide konkretuak jartzeko, multimedia ekoizpen propioa antolatzea edo genero berdintasuna ekinbide guztietan bermatzeko politika azpimarratu daitezke.

Bestetik, helburu azertatu horiek betetzeko ekintza eraginkorrak burutu direla ere esan behar da; adibideekin jarraituta, hor daukagu martxan bertsoa.eus eta hedapeneko ekoizpen ugariak, edo genero taldea eta Ahalduntze Bertso Eskola lako dinamika zehatzak.

**Hala ere, balantze on horren barruan izango dira hobetu beharrekoak, ezta?**

**I.E:** Noski, balantzea oso ona izateak ez du esan nahi zer hobeturik ez daukagunik. Aipatutako gaietan bertan, bertso mugimenduaren hedabide estrategian zein genero ikuspegia lantzeko garaian, adibidez, helburu anbiziotsuagoen eta ekintza eraginkorragoen beharra seinalatzen digu azterketa soziologikoak berak.

Horretaz gainera, badira berrikuspen estrategikoa eskatzen duguten arloak. Kasurako, hezkuntza arautuan eta bertso eskoletan egiten gabiltzan lanaz elkartearen baitan gaur ditugun ikuspegi berriengatik, edo, ikerkuntzan, lankide ditugun beste eragile batzuekiko ikuspegi diferentziak negoziatu beharrragatik.

Eta azkenik, edo, lehenik, bada funtsezko gai bat buruhauste handiak eragiten dizkiguna, bai nik elkarte ezagutzen dudanetik behintzat: bertso gintzan zer eragin daukagun, eta zertan eta zenbateraino eragin behar genukeen. Eta, honekin lotuta, zelan landu behar dugun bertso gintzaren lekua kultur sorkuntzaren arloan.

Amaitzeko, hamabi urteotan Bertsozale Elkartea asko hazi dela ere esan beharra dago. Hazkunderari ere neurgailu kuantitatiboa ez ezik kualitatiboa ere jarri behar diogu.



Bertso Udalekuak, Euskal Herriko zein lurraldeetako txapelketak, Hitzetik Hortzera... hamaika egitasmo jarri dira abian urteotan.//XDZ

# Irailaren 22ko tailerrak, sei arlo aztergai

Bertsozaletasunari buruzko ikerketa soziologikoak utzi dituen ondorioetatik abiatuta, irailaren 22an hainbat gairen inguruan hausnartzeko tailerrak antolatu ditugu. Tailerretan sei arlo izango dira solasgai; horietan iritziak bildu eta azaroan egingo den gogoetaldirako dokumentua prestatzea da asmoa.

Jardunaldia Baionako Bernat Etxepare lizeoan egingo da, goizez hiru tailer egingo dira eta arratsaldean, beste hiru. Igor Elortzaren esanetan, "iraileko tailerren helburua iritziak

eta kezka konpartitzea izango da, adostasunak eta erabakiak aurreratzea baino gehiago. Gaiak edukiz betetzea. Azaroan egingo dugun gogoeta bai izango da helburu estrategikoak zehazteko".

Tailer bakoitzak ikerketa soziologikoak utzi dituen gai nagusietako bat aztertuko du. Honakoak dira irailaren 22an izango diren sei tailerrak:

- **Non eta nola geroratu bertsozaletasuna?** Bertso-eskolez, hezkuntza arautuko proiektuaz, aisialdiaz, eta transmisio egitasmo osoaz, oro har.
- **Norantz doaz plaza eta bertsogintza?** Bertsogintzaren beraren bilakaera, plaza motak eta txapelketa ereduak, besteak beste.
- **Nola hedatuko dugu bertsolaritza gaur egungo testuinguruan?** Telebistaren aroa izan denaren ondoren aukera berriak aztertzea izango da helburua, zer eduki zabaldu nahi dugun eta nola egin nahi dugun pentsatzea.
- **Zer eta zertarako ikertu?** Xenpelar Dokumentazio Zentroaren aurrera begirako norabidea, eta munduko ahozko inprobisazioarekiko eta euskarazko bestelako ahozko sorkuntzekiko Mintzolaren egitekoa.
- **Genero berdintasuna: zertan eta nola eragin?** Bai bertsogintzarekiko eta baita elkartearen beraren barne egituraketa eta funtzionamenduarekiko ere.
- **Nola komunikatu behar dugu esfera publikoan?** Zein jarrera publiko hartu behar ote duen elkarteak, zer eta nola komunikatu nahi duen esfera publikoan...

## Bazkideen parte-hartzea

Tailerren inguruko informazio osatua eta horietan izena emateko modua [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean aurkituko duzu. Irailaren 14ra arte eman ahal izango da izena.

Gogoeta prozesu honetan guztian Bertsozale Elkarteko bazkideen parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira. "Helburu horiek betetzeko, noski, lantaldeak indartu beharko ditugu, lantaldeak indartzeko bazkideok ilusionatu, eta bazkideak ilusionatzeko egitasmo motibagarriak irudikatu", dio Elortzak.

Illo beretik, gogoetak duen garrantzia gogora ekarri du Beñat Gaztelumendik. "Datozen hamar urteotarako helburuak zehaztera eta helburu horietara begira lan egingo duten taldeak sortzera goaz hilabeteotan"

Horregatik, Bertsozale Elkarteko bazkideok bai iraileko tailerretan bai azaroko gogoetaldian parte hartzeko deia luzatu du zuzendaritzako kideak. "Sekulako energia daukagu, bai proiektuz eta baita ekipoz ere, eta elkar zainduz, borondatez lanean aritzeko gune zoragarria da bertsolaritza. Eta, berekoia izanik, ez dago norberaren burua lantzeko eta ikasteko taldean aritzea baino ariketa osasuntsuagorik".



Gogoeta estrategikoaren lehen fasean, ikerketa soziologikoaren emaitzak aurkeztu ziren. //XDZ



## Puntua jarrita

IRATI MAJUELO ITOIZ

"Bertsolaria bai, baina zein bertsolari mota izan nahi dut, zertarako eta zer esateko? Eta zer egin nahiko nukeen horretara iristeko?". Ez da nolanhiko galdera, Saioa, oraingoan bota didazuna. Bertso kantuan egindako ibilbidean zehar, bertsolari gehienek —guztiak, esanen nuke— egin diote galdera hori euren buruei —eta ez behin, ez bitan, baizik eta etengabe—.

Zuk eta beste askok, galdetu izan didatenean, nik ere ahapeka eta zalantza askorekin esan izan dut bertsolaria naizela. Lotsa eman izan dit —eta ematen dit, oraindik— etiketa hori neure buruari jartzeak, aski merezimendu pilatu ez dudanaren sentsazioa izan baitut sarri. Hala ere, baditut zenbait espazio bertsolaritzarekin lotu eta bertsolaria izan banaizela berresten laguntzen didatenak.

Askotan norbere bidea indibidualki jorratu behar den arren, bertsolaritza komunitate handi baten gisa ulertzen dut eta, hortaz, gertuko babes-sareak dira niretzat bertso-eskolak. Komunitatetik abiatuta pentsatzen ditut nik lehen egindako galderak: zer kantatu nahi dut? Zertarako? Nola?

Nire ingurura begiratuta, lehenabiziko erantzunak azkar bururatzeko zaizkit: bertsotan egin nahi dut, euskaraz bizitzeko, Iruñea eta Nafarroa euskaraz blaitzeko, euskaraz entzuteko. Bertsotan egin nahi dut, posible dela ikus dadin, ahalik eta txoko gehienetara hel dadin, beste herrialdeetan Iruñean bertsotan egitea zer den jakin dezaten.

Nola? Lagunekin, beti. Eta hor sartzeko da taldea, sarea, bertso-eskola. Konfiantzazko espazioa izaki, Nafarroako zenbait gaztek osatzen dugun bertso-eskolak probatzeko aukera ematen dit, esperimintatzeko, zer abestu nahi dudan jakiten hasteko. Azken finean, Iruñean eta gazte ikuspegitik kantatzeko taldea da galdera horietako askori erantzunak aurkitzeko nik dudan bidea. Ahalduntze Bertso Eskolak ere funtzio bera du niretzat: galderak airera bota, esperimintatu eta erantzunen bila abiatu.

Uste dut garrantzitsua dela horrelako espazio propioak edukitzea, eta ez baldin badaude sortzea, bertsotan gustura sentiarazten gaituzten moldeak eraiki nahi baditugu. Zuk Sarai, bertsolari gazte moduan, topatu al duzu horrelako sarerik? Espazio jakin batzuen falta sumatzen duzu?

## Koplak

### Izen-ematea Ahalduntze Bertso-Eskolan

Ahalduntze Bertso-Eskolaren edizio berriari ekingo zaio urrian. 2019ko ekaina bitartean hileroko maiztasuna izango du bertsolari bezala aurrera egin nahi duten emakumeentzat lagungarri izateko sortu zen bertso-eskolak. Izena emateko epea irailaren 3tik 21era egongo da zabalik, umorez@bertsozale.eus helbide elektronikora idatzita. Gogoan izan taldea osatzeko orduan izena emateko ordena hartuko dela kontuan.

## Poto-Finixa



### Ikasturtea, bizi-bizi hasi

Irailan ekimen asko jarriko ditugu martxan: Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren xehetasunak emango ditugu, Mintzola Ahozko Lantegiaren eta Lankuren eskutik Nazioarteko Inprobisatzaileen Bira aurkeztuko dugu, Hernandorena Sariketa hasiko da, Hitzetik Hortzeraren denboraldi berria hilaren 30ean... berri zehatza, [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) eta [www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus) webguneetan, eta baita sare sozialetan ere.

**BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
NAGUSIKO  
LIBURUA**  
salgai!

[www.lanku.eus](http://www.lanku.eus)

PUBLIZITATEA